

Sarek bere istorio guztia kontatu ondoren ama barrezka hasi zen, eta esan zion:

- Sare hori da zuk daukazun imajinazioa!!. Beti gauzak sinestezinak eta gezurrak asmatzen.

Orduan Sarek atsoak emandako zorrotik lorea atera zuen eta bere amari erakutsi zion. Ama aho zabalik geratu zen eta lorea ikusitakoan, Sarek kontatutako guztia sinistu zuen.

Bien artean erabaki zuten baserriko atarian jarriko zutela atsoak emandako lorea.

- Badakizue zer motatako lorea zen?
- Euskal Herriko Eguzki lorea.

Sare eta bere familia kontakizun honetatik aurrera oso zoriontsu bizi izan ziren.

Hala bazan edo ez bazan zoriontsu bizi nahi baduzu jarri ezazu Eguzki lore bat zure etxeko atarian.

• • • • •

“Sare eta atsoa”

Aiuri Busket

10 urte – Lezama

2012 – C kategoria

1. saria

• • •

